SINATZAILEA
Irurtzungo Udaleko idazkaria /La Secretaria del Ayuntamiento de Irurtzun
EGUZKIÑE AIESA ANDRES
2024/12/23



**TXOSTEN JURIDIKOA, IRURTZUNGO PILOTALEKUAREN ATZEKALDEKO APARKALEKU PUBLIKOAN IRISGARRITASUNA EGOKITZEKO ETA HOBETZEKO LANAK GIZARTE- ETA GENERO-IKUSPEGIAREKIN KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA LEGEZKOTASUNERA EGOKITZEARI BURUZKOA.**

***INFORME JURÍDICO, SOBRE LA ADECUACIÓN A LA LEGALIDAD DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS PARA LA ADECUACIÓN Y MEJORA DE LA ACCESIBILIDAD EN EL APARCAMIENTO PÚBLICO DE LA TRASERA DEL FRONTÓN DE IRURTZUN, CON PERSPECTIVA SOCIAL Y DE GÉNERO***

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (aurrerantzean, EFPL) 138.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, TXOSTEN JURIDIKO hau ematen da, Irurtzungo (Nafarroa) pilotalekuaren atzekaldeko aparkaleku publikoan irisgarritasuna egokitu eta hobetzeko lanak lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko espedientearen legezkotasunari buruzko informazioa emateko.

*De conformidad con lo previsto en el artículo 138.3 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos (en adelante, LFCP), se emite el presente INFORME JURÍDICO, a los efectos de informar sobre la legalidad del expediente de contratación, mediante procedimiento negociado sin convocatoria de licitación, del contrato de obras para la adecuación y mejora de la accesibilidad en el aparcamiento sito en la trasera del frontón de Irurtzun (Navarra).*

**AURREKARIAK**

***ANTECEDENTES***

I.- 2024ko azaroaren 25ean, Udal honetako Alkatetzak, kontratazio-organo gisa, interes publikoa asetzeko Irurtzungo Larraun kaleko 1 zenbakian dagoen aparkaleku publikoaren irisgarritasuna egokitzeko eta hobetzeko obrak egiteko beharrari edo komenigarritasunari buruzko txostena eman zuen. Txosten horrek hasiera eman zion 191409X espedienteari, eta prozedura ireki bidez izapidetu zen.

*I.- Con fecha 25 de noviembre de 2024, la Alcaldía de este Ayuntamiento, en su calidad de órgano de contratación, emitió informe de necesidad o conveniencia de realizar obras para la adecuación y mejora de la accesibilidad en el aparcamiento público sito en la calle Larraun, 1, de Irurtzun, para la satisfacción del interés público. Dicho informe, dio inicio al expediente 191409X, que se tramitó por procedimiento abierto.*

II.- Alkatetzaren abenduaren 17ko 2024/308 Ebazpenaren bidez, hutsik deklaratu zen lehenengo aurrekarian deskribatutako esleipen-prozedura, proposamenak aurkezteko epea eskaintzarik jaso gabe amaitu zelako, eta helburu bereko beste espediente bat ireki zen. Ildo horretan, 2024ko abenduaren 18an, Alkatetzak beste beharrezkotasun-txosten bat eman zuen, KPFLren 138.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

*II.- Mediante Resolución de Alcaldía 308/2024, de 17 de diciembre de 2024, se declaró desierta la licitación descrita en el Antecedente Primero, por haber transcurrido el plazo de presentación de proposiciones sin que se presentara ninguna, y se incoó nuevo expediente con el mismo fin. En este sentido, el 18 de diciembre de 2024, Alcaldía emitió un nuevo informe de necesidad, a los efectos previstos en el artículo 138.3 LFCP.*

III.- Abenduaren 18ko 24.18 Idazkaritza-eginbidean adierazten den bezala (abenduaren 23ko 24.19 eginbidearen bidez zuzendua), abenduaren 18an, Udal Kontu-hartzailetzak adierazi zuen egokia zela goian aipatutako ebazpenak esleitu gabe utzitako xede bereko lizitazioa zela eta 2024ko azaroaren 27an emandako txostena berrerabiltzea.

*III.- Tal y como señala la Diligencia de Secretaría 24.18 de 18 de diciembre, corregida mediante diligencia 24.19, de 23 de diciembre, el 18 de diciembre la Intervención Municipal señaló la procedencia de reutilización del informe emitido el 27 de noviembre de 2024, con ocasión de la licitación con el mismo objeto declarada desierta por la resolución arriba citada.*

Era berean, Juan Antonio Ascunce Izuriaga arkitektuak adierazi zuen lizitazio prozedura berrian erabili beharreko proiektu teknikoa xede berarekin egin zen baina esleitzeke utzitako prozeduran erabilitako bera dela. Zentzu honetan, Idazkaritza honek ulertu zuen azaroaren 25eko alkatetzaren 2024/294 ebazpena ere berrerabil zitekeela (ebazpen horren bidez, pilotalekuaren atzealdean dagoen aparkaleku publikoan irisgarritasuna egokitu eta hobetzeko lanen proiektu teknikoa onartu zen).

*Igualmente, el Arquitecto, Juan Antonio Ascunce Izuriaga, indicó que el proyecto técnico a utilizar en la nueva licitación es el mismo que el utilizado en la licitación con el mismo objeto declarada desierta. En este Sentido, esta Secretaría entendió que cabía también reutilizar la resolución de alcaldía 294/2024, de 25 de noviembre, por la que se aprueba el proyecto técnico de las obras para la adecuación y mejora de la accesibilidad en el aparcamiento público de la trasera del frontón.*

IV.- KPFLren 75.1.a artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, kontratua prozedura negoziatuaren bidez esleitzea proposatzen da, lizitazio-deialdirik gabe. Administrazio-pleguak ez du aurrekoarekiko funtsezko aldaketarik izango, eta plegu teknikoa bere horretan geratuko da.

*IV.- Considerando lo dispuesto en el artículo 75.1.a LFCP, se propone adjudicar el contrato mediante procedimiento negociado sin convocatoria de licitación, manteniendo el pliego administrativo sin alteraciones sustanciales con respecto al anterior e intacto el pliego técnico.*

## ARRAZOIBIDE JURIDIKOAK

## *FUNCAMENTOS JURÍDICAS*

**Lehenengoa.-** Kontratatzeko eskumena duen organoa.

Irurtzungo Udaleko Alkatetza da kontratatzeko organo eskuduna, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen (aurrerantzean, TAFL) 8. eta 226. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriari dagokionez.

***Primero.-*** *Órgano competente para contratar.*

*El órgano competente para contratar, a tenor de la previsión de los artículos 8 y 226 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra (en adelante, LFAL), en relación con la Disposición Adicional Segunda de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, es la Alcaldía del Ayuntamiento de Irurtzun.*

**Bigarrena.-** Jarraitu beharreko prozedura.

EFPLren 71. artikuluak administrazio-kontratuak esleitzeko prozedura guztiak zerrendatzen ditu, nahiz eta 71. artikulu horren 2. paragrafoak prozedura arrunt gisa prozedura irekia eta murriztua ezartzen dituen.

Bestalde, Foru Lege horren 74.1 artikuluak dio prozedura negoziatuan kontratazio-organoak kontratuaren baldintzak kontsultatu eta negoziatzen dituela enpresa edo profesional batekin edo gehiagorekin, eskaintza modu justifikatuan hautatuz.

Aurreikuspen hori KPFLren 75.1 artikuluan jasotako kasuetan erabili ahal izango den lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuaren modalitatearekin osatzen da. Ildo

***Segundo.-*** *Procedimiento a seguir.*

*El artículo 71 LFCP relaciona todos los procedimientos de adjudicación de un contrato administrativo, si bien el apartado 2 de dicho artículo 71 señala como procedimientos ordinarios, el procedimiento abierto y el restringido.*

*Por su parte, el artículo 74.1 de la citada Ley Foral señala que el procedimiento negociado es aquel en el que el órgano de contratación consulta y negocia las condiciones del contrato con una o varias empresas o profesionales y selecciona la oferta justificadamente.*

*Dicha previsión es complementada por la modalidad del procedimiento negociado sin convocatoria de licitación, que podrá utilizarse en los supuestos recogidos en el artículo 75.1*

SINATZAILEA
Irurtzungo Udaleko idazkaria /La Secretaria del Ayuntamiento de Irurtzun
EGUZKIÑE AIESA ANDRES
2024/12/23

horretatik, KPFLren 75.1.a artikuluak ezartzen du honako kasuetan erabili ahal izango dela: "*Prozedura ireki edo murriztu batean, parte hartzeko eskaerarik edo eskaintza egokirik aurkeztu ez bada, betiere kontratuaren hasierako baldintzak nabarmen aldatzen ez badira.*"

Amaitzeko, 75. artikuluaren 2. paragrafoak honako hau aurreikusten du: "*Gonbidapenean ezarriko dira negoziazioaren alderdiak eta irizpideak, haien haztapena, nola eginen den, konfidentzialtasun arauak eta nola amaituko den.*"

**Hirugarrena.-** Alderdi formalak.

KPFLren 78. artikuluak gehitzen du eskaintzak aurkezteko aukeratutako hautagaientzako gonbidapena idatziz eginen dela, denentzat aldi berean eta, gutxienez ere honakoak adieraziko dituela:

a) Plegu arauemaileak eskuratzeko modua, edo eskatzeko helbidea.

b) Dokumentazio gehigarria eskatzeko mugaeguna.

c) Eskaintzak aurkezteko azken eguna, zein helbidetara igorri behar diren eta zein hizkuntzatan idatzi behar diren.

d) Argitaratutako lizitazio iragarkien erreferentzia.

e) Eskaintza aurkeztean erantsi beharreko dokumentazioa, halakorik egin behar bada.

f) Adjudikazio edo negoziazio irizpideak kontratuaren xedearekin lotutakoak.

g) Kontratua adjudikatzeko irizpideen haztapen erlatiboa, informazio hori lizitazio iragarkian agertu ezean.

Prozedura honetako intzidente-gai gisa, KPFLren 138.4 artikuluak aurreikusten du, kontratua prestatzeko fasea amaitutakoan, prozedura sinplifikatuan eta lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuan izan ezik, kontratazio-organoak ebazpen arrazoitua emango duela, espedientea onartuz eta adjudikazio-prozedura irekiz. Ebazpen horretan gastua egiteko baimena

*LFCP. En esta línea, el artículo 75.1.a LFCP establece que podrá utilizarse* "Cuando, en un procedimiento abierto, restringido, no se haya presentado ninguna solicitud de participación o ninguna oferta adecuada, siempre y cuando no se modifiquen sustancialmente las condiciones iniciales del contrato".

*Para finalizar, el apartado 2 del citado artículo 75 prevé que* "la invitación establecerá, en su caso, los aspectos y criterios de negociación, su ponderación, la forma en que va a llevarse a cabo, las reglas de confidencialidad y cómo concluirá".

***Tercero.-*** *Cuestiones formales.*

*El artículo 78 LFCP añade que la invitación a los candidatos seleccionados a presentar ofertas se realizará por escrito y simultáneamente a todos ellos e indicará, como mínimo:*

a) *El modo de acceso a los pliegos reguladores o, en su caso, la dirección donde puedan solicitarse.*

b) *La fecha límite para solicitar la documentación adicional.*

c) *La fecha límite de presentación de ofertas, dirección a la que deben remitirse e idioma o idiomas en que deben redactarse.*

d) *La referencia a cualquier anuncio de licitación publicado.*

e) *La indicación de la documentación que debe adjuntarse, si procede, a la presentación de la oferta.*

f) *Criterios de adjudicación o negociación relacionados con el objeto del contrato.*

g) *La ponderación relativa de los criterios de adjudicación del contrato, en caso de que esta información no figure en el anuncio de licitación.*

*Como cuestión incidental en este procedimiento, el artículo 138.4 LFCP prevé que, completada la fase de preparación del contrato, excepto en el procedimiento simplificado y en el procedimiento negociado sin convocatoria de licitación, se dictará resolución motivada por el órgano de contratación aprobando el expediente y disponiendo de apertura del procedimiento de*

SINATZAILEA
Irurtzungo Udaleko idazkaria /La Secretaria del Ayuntamiento de Irurtzun
EGUZKIÑE AIESA ANDRES
2024/12/23

ere jasoko da. Beraz, lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuetan ez da nahitaezkoa administrazio-espedientea onartzeko ebazpena ematea.

*adjudicación. Dicha resolución comprenderá también la autorización del gasto. Por tanto, en los procedimientos negociados sin convocatoria de licitación no es preceptiva la resolución de aprobación del expediente administrativo.*

Bestalde, KPFLren 93.1 artikuluaren arabera, Nafarroako Kontratazio Atarian iragarri behar dira balio zenbatetsia Europako gutxienekoarena baino txikiagoa duten lizitazioak, salbu eta lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatuak, prozedura erraztuak eta zenbateko txikiko kontratuetarako araubide bereziko prozedurak.

*Por su parte, el 93.1 LFCP establece que deben anunciarse en el Portal de Contratación de Navarra las licitaciones de valor estimado inferior al umbral europeo, con excepción de los procedimientos negociados sin convocatoria de licitación, los procedimientos simplificados y en los procedimientos de régimen especial para contratos de menor cuantía.*

Amaitzeko, aipatu behar da arau beraren 94.1.b) artikuluak aurreikusten duela prozedura negoziatuetan eskaerak aurkezteko gutxieneko epea 10 egunekoa izango dela iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera, eta eskaintzak aurkezteko epea hamar egunekoa izango dela gonbidapena bidaltzen den egunetik aurrera. Kasu honetan, aurreko paragrafoan esan den bezala Kontratazioaren Atarian iragarkia jartzea nahitaezkoa ez denez, gutxieneko bigarren epe hori baino ez da erabiliko (eskaintzak aurkezteko hamar egun, gonbidapenak bidaltzen diren egunetik aurrera).

*Para acabar, debe señalarse que el artículo 94.1.b) de la misma norma prevé que en los procedimientos negociados el plazo mínimo de presentación de solicitudes será de 10 días a partir de la fecha de publicación del anuncio, y el plazo de presentación de ofertas será de diez días a partir de la fecha de envío de la invitación. En este caso, al no ser preceptivo el anuncio en el Portal de Contratación, tal y como se ha dicho en el párrafo anterior, únicamente operará este segundo plazo mínimo (diez días de presentación de ofertas, a partir de la fecha de envío de las invitaciones).*

Horregatik guztiagatik, sinatzen duen idazkariak espedientearen aldeko txostena eman du.

*Por todo ello, la Secretaria que suscribe informa favorablemente el expediente.*

Irurtzunen, sinaduraren datan.

*En Irurtzun, a la fecha de la firma.*

Idazkariak / *La Secretaria*